



*Bigarren Lehendakariordea eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko Sailburua  
Vicepresidente Segundo y Consejero de Economía, Trabajo y Empleo*

**AGINDUA, 2024KO ABENDUAREN 4KOA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA EKONOMIA, LAN  
ETA ENPLEGU SAILBURUARENA, ARABAKO OSTALARITZA- SEKTOREAN, 2024KO ABENDUAREN  
5 ETA 7AN, DEITUTAKO GREBAN EMATEN ZAION FUNTSEZKO ZERBITZUARI EUSTEA BERMATZEN  
DUENA**

---

ELA eta LAB sindikatuak greba deitu dute Arabako ostalaritza-sektorean 2024ko abenduaren 5 eta 7an, lanaldi osoan.

Grebarako deialdiaren helburua Lan Agintaritzari bidalitako jakinarazpenean jasota dago, eta hasitako espedienteetan jasota dago.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa eta osasuna. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako oinarrizko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarrizko eskubideetako bat bera ere.

Edonola ere, aurreko premisa ondorioztatu ondoren, nabaria da oinarrizko eskubideak murriztuko dituen neurri orok proportzionaltasun-printzipioa zorrotz bete behar duela eta, hori lortzeko, hiru betekizun edo baldintza bete beharko ditu neurriak: hori aplikatuz gero proposatutako helburua lortu ahal izatea, edo «egokitasun-judizioa»; kasua aztertu ondoren helburu hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatu izana, edo «premia-judizioa»; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun judizioa, zentzu hertsian». Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa eta ezinbestekoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuzentasunez jokatzeko. Hori guztia dela-eta, ziurtatze horrek berme gisa jardun behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta, betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela —amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan—, baldin eta haien interesak grebaren bidez babesteak komunitateari edo funtsezko zerbitzuaren hartzailari zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien erreibindikazioek edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino.

Hori guztia dela-eta, aurrekoa kontuan hartuta eta greba-deialdi honen aurrean, grebaren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

Kasu honetan, eta lehen aipatu bezala, bi egunetarako deitutako greba da, 2024ko abenduaren 5ean eta 2024ko abenduaren 7an, lanaldi osoan, eta Arabako ostalaritza-sektoreko langileei zuzenduta dago.

Arabako ostalaritzaren sektorean, greba-deialdiaren eraginpean, honako hauek egon daitezke: osasun-zentro publiko eta pribatuetan sukaldaritza kolektiboko zerbitzuak ematen dituzten enpresak, adinekoentzako eta/edo mendetasunen edo desgaitasunen bat dutenentzako egoitzak, eguneko zentroak, adinekoentzako etxebizitza komunitarioak eta hezkuntza bereziko zentroak, bai eta mendekotasun- edo desgaitasun-mailaren bat duten pertsoneri eragiten dietenak ere, eta, azkenik, ikastetxeak.

Aurreko paragrafoan aipatutako hainbat zentrok erabaki dute beren sukalde-zerbitzuak kanpoko langile kontratatuek edo catering-zerbitzuek ematea, halako moldez non zerbitzu horiek ez funtzionatzeak elikadurarik gabe utziko lituzkeen ospitaleratutako pertsonak, horien egoiliarak edo erabiltzaileak. Kasu horietan, grebak, beraz, funtsezko zerbitzu izaera hartzen duten oinarrizko eskubideei eragiten die, eta, ondorioz, konstituzio-babes bera duten eskubideek talka egiten dute.

**Osasun-zentroetan**, Arabako ostalaritza-sektoreko enpresa batzuek azpikontratutako zerbitzuak eman ditzakete. Kasu horietan, menuak prestatzen dituzte sukalde nagusietan zein in situ, eta, hala badagokio, banatu egiten dituzte.

Osasuna babestea oinarrizko eskubideetako bat da edozein zuzenbide-estatutan. Gaur egun, herritarrek gutxieneko osasun-prestazioak eskatzeko duten eskubidea da, giza duintasunaren eta estatu bakoitzaren garapen sozial eta ekonomikoaren arabera. Hala, Giza Eskubideen Adierazpenak (NBE, 1948), 25.1 artikuluan, honako hau dio: «persona orok du osasunerako eta ongizaterako eskubidea, eta, bereziki, laguntza medikorako eta beharrezko gizarte-zerbitzuetarako eskubidea». Ildo beretik doaz Europako Kontseiluaren Gutun Sozialaren 11. artikulua (Turin, 1961) eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 12. artikulua (NBE 1966).

Osasun-zerbitzu publikoek zein pribatuek pertsonen osasuna eta bizitza babesten dituzte, eta «ospitaleratutako pazientearen arreta egokia» ematen dute. Horren ondorioz, besteak beste, gaixoek behar bezala emandako sendagaiak, higiena eta beharrezko elikadura jasotzen dituzte, hau da, haien osotasun fisikoa eta morala hondatu ez dadin behar den laguntza.

Horregatik, osasunerako eta bizitzeko eskubidea babeste aldera, sukaldaritza-zerbitzua mantenduko da osasun-zentroetan ospitaleratutako pertsoneri behar duten arreta zorrotza bermatzeko. Enpresa horiek osasun-zentroetarako egiten duten elikadura ahalik eta modu errazenean eta sinpleenean prestatuko da, eta dagokien zentroetara ere banatuko dela bermatu beharko da. Ahal dela, erabili eta botatzeko modukoak izango dira, eta zeregin horretan ahalik eta denbora gutxien erabiltzea ekarriko duten protokolo edo metodologiaren arabera egingo da, grebak ikusgarritasuna lortu ahal izan dezan eta nahi duten ahalik eta pertsona gehienek parte hartu ahal izan dezaten. Pertsonen osasuna edo osotasuna ez da inola ere arriskuan jarriko. Aurreko eginkizunak larunbat bateko ohiko langileek beteko dituzte.

**Egoitzen, eguneko zentroen eta etxebizitza komunitarioen esparruan**, Arabako ostalaritza-sektoreko enpresek azpikontratutako zerbitzuak eman ditzakete, sukalde nagusietan zein in situ menuak egiteko.

Honako hauek dute «funtsezko» izaera: adineko pertsonentzako eta/edo mendekotasun edo desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitzek, eguneko zentroek, adinekoentzako etxebizitza komunitarioek eta hezkuntza bereziko zentroek, bai eta mendekotasun- edo desgaitasun-mailaren bat duten pertsonen eragiten dieten bestelakoek ere, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikuluan eta horrekin bat datozenetan aurreikusitako arau-konfigurazioaren arabera; eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan, 41/1998 Dekretua, martxoaren 10ekoa, Adintsuentzako Etxeetako Gizarte Zerbitzuei buruzkoa; 126/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzkoa; eta 202/2000 Dekretua, urriaren 17koa, Adineko Mendekoentzako Eguneko Zentroei buruzkoa, Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik. Neurri handi batean, prestazio horien onuradunak mendeko direlako gertatzen da hori, kasu gehienetan osasunean defizit handia dutelako eta legez aitortuta dituzten autonomiarako eta mendekotasun-mailei arreta emateko sistemaren laguntza integrala behar dutelako. Horri laguntza pertsonalaren osagai sendo bat gehitu behar zaio, eguneroko bizitzako zereginak egiteko.

Pertsona horiei babes konstituzional berezia ematen zaie, Konstituzioaren 50. artikuluan aurreikusten den bezala, eta Konstituzioaren 15. eta 43.2 artikuluetan jasotako bizitzeko, osotasun fisiko eta moralerako eta osasunerako eskubideei ere eragiten zaie, bai eta 10.1 artikuluan ordena politikoaren eta bake sozialaren oinarri gisa jasotako pertsonen duintasunari ere.

Horren ondorioz, eta kolektibo hori babesteko, gutxieneko zerbitzu batzuk ezarri behar dira adinekoentzako eta/edo mendekotasun edo desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitzetan, eguneko zentroetan, adinekoentzako etxebizitza komunitarioetan eta hezkuntza bereziko zentroetan, bai eta nolabaiteko mendetasuna edo desgaitasuna duten pertsonen eragiten dieten bestelakoetan ere, eta erabiltzaileen janari-zerbitzua bermatu behar da. Horretarako, sukaldeko langileen % 50 mantenduko da, bai zentroetan bertan, bai eragindako enpresen sukalde nagusietan. Azken kasu horretan, bermatu egin beharko da zentro horietara banatzen direla.

Era berean, grebak irauten duen bitartean, elikagaiak prestatzeko eta, hala badagokio, zentroetan banatzeko lanak baino ez dira egingo. Erabiltzaileak ahalik eta modurik errazenean elikatuko dira, baita alde zuzenetik prestatu ere, medikuak berariazko agindu zehatzik eman ezean. Erabili eta botatzekoak erabiliko dira, eta zeregin horretan ahalik eta denbora gutxien ematea eskatzen duten protokoloak edo metodologiak erabiliko dira. Inola ere ez da arriskuan jarriko egoiliarren osasuna edo osotasuna.

**Hezkuntza-sektorean,** Arabako ostalaritza-sektoreko enpresek zerbitzu azpikontratatuak eman ditzakete ikastetxeetako jantokietan.

Zerbitzu honako hauek izaten dira: alde batetik, menuak prestatzea, banaketa eta office, eta, bestetik, jantokiko begirale-zerbitzua. Talde bakoitzak egiten dituen zereginak berdinak dira maila guztietan. Aldea honako hau da: ikasleek adinaren (zenbat eta adin txikiagoa izan, orduan eta arreta- eta laguntza-maila handiagoa behar dute) edo beste inguruabar batzuen (hala nola hezkuntza berezia) arabera behar duten arreta-maila.

Bizitzarako, osotasun fisiko eta moralerako, hezkuntzarako eta lanerako eskubide konstituzionalak, besteak beste, Konstituzioaren 15., 27. eta 35.1 artikuluetan jasotakoak, eta Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 18. artikulua, Espainiako Estatuak berretsia Haurren Eskubideei buruzko 1989ko azaroaren 20ko Konbentzioaren 1990eko azaroaren 30eko Berrespen

Tresnaren bidez, zeina Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartu baitzuen eta botere publikoei baitagokie eskubide horiek bermatzea prebentzio-neurrien bidez eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz, ezin dira babesik gabe geratu greba-eskubidea zilegi ez bada. Babes horrek, bestalde, ezin du inola ere grebarako eskubidearen edukia hustu, Konstituzio Auzitegiak ezarritako doktrinaren arabera grebarako eskubidearen ezarpena murriztailea izan behar baita.

Zerbitzu horien funtsezkotasuna ukitutako eskubideek – hezkuntza eta haurren eta nerabeen babes eta garapen integralarekin zerikusia dutenak – duten funtsezko izaeratik eratorzen da, eta Estatuko araudian, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan – Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzen dituenak –, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legean ere islatzen da. Baldintza hori Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak ere berretsi du 1994ko maiatzaren 20ko epaian eta 2009ko apirilaren 14ko epaian, zeina behin eta berriz aipatu baita aurreko aginduetan. Aipatutako epaietako lehenak honako hau ezartzen du: «ikasleei eguerdian bazkaririk ez egitea, osasunerako eta hezkuntzarako eskubide konstituzionalak urratzen ditu». Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak funtsezko izaera hori aitortu du lurralde-deialdien aurrean. Ikus horri buruzko 2010eko abenduaren 22ko eta 2011ko urtarrilaren 13ko epaiak.

Gutxieneko zerbitzuak zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira, halaber, eskola-jantokien gizarte- eta hezkuntza-arloko izaera, jantokirik ez izateak eraginpean hartuko lituzkeen ikasleek behar duten arreta integrala, grebaren lurraldetasuna eta denbora-eremua.

Kontuan hartu beharreko beste zirkunstantzia bat da deialdia ohiko lanaldietan egiten dela, abenduaren 7an izan ezik, eta, bertan, ikasleak normalean bertaratuko direla aurreikusten dela. Lanaldietan, aldiz, beste deialdi batzuk daude, hala nola hezkuntzako profesionalen grebak edo greba orokorrak.

Halaber, aurreko deialdietan emandako Funtsezko Zerbitzuen Aginduetan ohikoa den bezala, beharrezkotzat jotzen da hezkuntza-etaparen araberrako desberdintasunak ezartzea.

Beraz, jantoki-zerbitzua bermatuko da, erraz eta erraz egiten diren elikagaiak prestatuz, bai ikastetxeetan bertan, bai ikastetxeek azpikontrataturako enpresen sukalde zentraletan. Azken kasu horretan, bermatu egin beharko da janariaren banaketa. Ondorio horietarako, egokitzat jotzen da greba honetan, eta zeregin horretarako, sukaldeko langileen % 10aren baliokidea den ehunekoia ezartzea gutxieneko zerbitzu gisa.

Era berean, jantokia muntatzea, mahaiak jasotzea eta garbitzea bermatuko da. Egokitzat jotzen da zeregin horretarako gutxieneko zerbitzu gisa ezartzea officeko langileen % 10.

Bestalde, begiraleen zaintza- eta laguntza-lanei dagokienez, argi dago funtsezkoa dela bi eta hiru urteko haurren jantoki-zerbitzua zaintzea, bai eta premia bereziak dituzten ikasleena ere, kolektibo bereziki kalteberak baitira eta modu pertsonalizatuan, elikadura espezifiko eta egoki bat eman behar baitaie. Oinarrizko eskubideak bermatzeko gutxieneko zerbitzuak ezartzeko arrazoia adin txikia izatea (2 eta 3 urte), autonomiarik eza eta arreta, zaintza eta zaintza handia eta integrala ematea da. Horretarako, gutxieneko zerbitzu gisa ezarri dira sukaldeko langileen, officeko langileen eta begiraleen asistentzia, bertaratze-ratioetan: begirale bat 2 urteko haurren talde bakoitzeko, 9 haurreko talde bakoitzeko; eta begirale bat 3 urteko haurren talde bakoitzeko, 15 haurreko talde bakoitzeko.

Aurreko greba-deialdietan gertatutakoaz gain, ikusi da Haur Hezkuntzako kolektiboaren barruan – 2 eta 5 urte bitarteko hezkuntza barne hartzen du –, 4 eta 5 urteko haurren kolektiboaren mendetasun-maila garrantzitsua dela jateko orduan; izan ere, arreta egokirik gabe

(normalean intentsitate handikoa izan behar du) ez dituzte ahoratzen edo jaten ez dute egiten higiene- eta osasungarritasun-maila egokietan, eta horrek osasunerako oinarritzko eskubidea arriskuan jartzen du, baita osotasun fisikorako eskubidea ere, zaintzarik eta zaintzarik ez dagoenean. Gauza bera gertatzen da hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin.

Horren ondorioz, eta kolektibo hori babesteko, gutxieneko zerbitzu batzuk ezarri behar dira begiraleen kategorian, eta, horretarako, kontuan hartu beharko dira langileen lan-kargak eta haurrek merezi duten arreta.

Horretarako, egokitzen da greba honetan gutxieneko zerbitzutzat eta, horretarako, begiraleen % 10aren pareko ehunekoa ezartzea, bai eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen elikadura-premiak betetzeko ezinbestekoa den gutxieneko begirale kopurua ere.

Antzeko grebetan, Bizkaiko ostalaritza-sektorean, gutxieneko zerbitzu berberak ezarri ziren 2023ko maiatzaren 31ko, 2023ko ekainaren 23ko, 2023ko urriaren 3ko eta 2023ko abenduaren 5eko Aginduetan.

Nahiz eta orduan agindutako gutxieneko zerbitzuak ez diren deialdi honetako gutxieneko zerbitzuak finkatzeko premisa juridiko loteslea – doktrina konstituzionalak galarazitako inferentzia –, aukera ematen dute egiaztatzeko zer eragin positibo edo negatibo izan dituzten, deialdi horietako gutxieneko zerbitzuek ezarritako babesei dagokienez, agindu honek babestu nahi dituen eskubide eta ondasunetan – grebarena barne –. Horregatik, agindu honek eutsi egiten die orduan emandako gutxieneko zerbitzuei.

Aitzitik, ezin dira funtsezko zerbitzutzat hartu, ez eta sukaldaritza kolektiboko jarduerekin zerikusia duten beste batzuk ere, hala nola ospitaleetako taberna eta kafetegietan edo enpresetako jantokietan ematen diren jatetxe-zerbitzuak, zerbitzu horiek emateak ez baitu Erkidegoaren bizi-interesik asetzen.

Aurrekoagatik guztiagatik, eta funtsezko eginkizunak zainduko dituen gutxieneko zerbitzurik ezarri gabe deitutako greba batean, grebarekin lortu nahi den helburua baino kalte nabarmen handiagoak eragin daitezkeela ikusita, gobernu-agintaritza honek agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezartzen ditu.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta deitutako greba horretan funtsezko eginkizunak zainduko lituzkeen gutxieneko zerbitzuak finkatu ezean, grebarekin lortu nahi den helburua baino askoz kalte handiagoak eragin daitezkeela, gobernu-agintaritza honek agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezartzen ditu.

Hori dela eta, Lan Harremanei buruzko Errege Lege-Dekretuaren (martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-Dekretuaren) 10.2. artikulua aipatzen duen prozedura hasi da, eta entzunaldia eman zaie ukitutako aldeei, enpresa-elkarteei eta sindikatuen ordezkariari, baita Foru Aldundiari ere, alegazioak egin ditzaten gizartearentzako funtsezkoak diren zerbitzu hauek bermatzeko beharrianari buruz, bai eta, hala badagokio, estali beharreko gutxieneko zerbitzuak proposa ditzaten ere.

Konstituzionaltasuna aitortuta duen arau horretan (Konstituzio Auzitegiaren 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa [RTC 1981\11]), Konstituzioaren greba-eskubideari buruzko 28.2 artikuluekin bat etorritik (artikulu horretan honako hau ezartzen baita: «eskubide horren erabilera arautzen duen legeak beharrezko bermeak ezarriko ditu gizartearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko»), gobernu-agintaritzari ematen zaio hainbat motatako berme-neurriak hartzeko aukera greba-kasuan funtsezko zerbitzuei eusteko, eta neurri horietako bat da administrazio-ebazpen bidez jarduerari eusteko ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak ezartzea, eta lan-prestazio hori eskaini behar duten langileei haiek bete ditzaten eskatzea.

Hori dela eta, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2 artikuluan aipatzen den prozedura bideratu da, eta idatziz eman zaie entzunaldia eraginpeko alderdiei, gobernu-erabakiaren eraginpean egongo diren zerbitzuei eta langileei buruzko proposamenak egin ditzaten.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 3. artikulua titularrari esleitzen dizkio ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) lan-legeria betearaztearen arloan bereganatutako eskumenak. Zehazki, 2.b) apartatua: zerbitzu publikoak edo premia aitortua eta atzeraezina duten zerbitzuak ematen dituzten enpresa, erakunde eta instituzioei eragiten dieten greba-eskubidea egikaritzen den kasuetan, erkidegoaren funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela bermatzeko behar diren bermeak ezartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, Horregatik guztiagatik, bigarren Lehendakariordeak eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak hartuta, honako hau

#### **EBAZTEN DU:**

**Lehen.** - Arabako ostalaritza-sektorean zerbitzuak ematen dituzten langileek 2024ko abenduaren 5eko eta 7ko lanaldi osoari eragiten badio, jarraian adierazten diren gutxieneko zerbitzuak mantendu beharko dira:

##### **1.- Osasun-zentroetan:**

**1.1.-** Sukalde-zerbitzua mantenduko da, osasun-zentroetan ospitaleratutako pertsonen behar bezalako arreta hertsiki bermatzeko. Enpresa horiek osasun-zentroetarako egiten duten elikadura ahalik eta modurik erraz eta sinpleenean prestatuko da, eta bermatu beharko da, halaber, dagokien zentroetara banatuko dela. Ahal dela, erabili eta botatzekoak erabiliko dira, eta zeregin horretan ahalik eta denbora gutxien erabiltzea eskatzen duten protokoloen edo metodologiaren arabera, greba ikusgarria izan dadin eta hala nahi duten ahalik eta pertsona gehienek grebarako aukera izan dezaten. Inola ere ez da arriskuan jarriko pertsonen osasuna edo osotasuna.

**1.2.-** Aurreko eginkizunak larunbat bateko ohiko langileek beteko dituzte.

**2.- Adinekoentzako eta/edo mendekotasun edo desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitzetan, eguneko zentroak, adinekoentzako etxebizitza komunitarioak eta hezkuntza bereziko zentroak, bai eta nolabaiteko depena edo desgaitasuna duten pertsonen eragiten dieten bestelako zentroak ere:**

**2.1.-** Ohiko langileen % 50 mantenduko da, bai zentroetan bertan, bai eraginpeko enpresen sukalde nagusietan. Azken kasu horretan, zentro horietara banatzen direla bermatu beharko da.

**2.2.-** % 50 pertsona bat baino gutxiago bada, pertsona horrek zerbitzu horiek egin beharko ditu.

**2.3.-** Grebak irauten duen bitartean, elikagaiak prestatzeko eta, hala badagokio, ikastetxeetan banatzeko lanak baino ez dira egingo. Erabiltzaileak ahalik eta modurik errazenean elikatuko dira, baita aldez aurretik prestatu ere, medikuak berriazko agindu zehatzik eman

ezean. Erabili eta botatzekoak erabiliko dira, eta zeregin horretan ahalik eta denbora gutxien ematea eskatzen duten protokoloak edo metodologiak erabiliko dira. Inola ere ez da arriskuan jarriko egoiliarren osasuna edo osotasuna.

**2.4.-** Gutxienerako zerbitzuak egitean grebara deitutako langileak eta grebara deituta ez daudenak bat badatoz, agindu honetan ezarritako ehunekoak kalkulatzeko, lan horiek egin ohi dituzten bi kolektiboetako pertsona guztiak hartuko dira kontuan.

**2.5.-** Era berean, «bat datozen» gutxienerako zerbitzu horiek egin behar dituzten pertsonak honako hurrenkera honen arabera izendatuko dira: lehenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta grebara deitu ez diren langileei deituko zaie; bigarrenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta greban libreki parte hartzen ez duten langileei; eta, azkenik, langile horiekin ez bada gutxienerako zerbitzua betetzen, greban parte hartu nahi duten langileak izendatuko dira.

### **3.- Ikastetxeetan, 2024ko abenduaren 5ean:**

**3.1.-** Jantoki-zerbitzua bermatuko da. Horretarako, erraz egiten diren elikagaiak prestatuko dira, bai ikastetxeetan bertan, bai eragindako enpresen sukalde nagusietan. Azken kasu horretan, bermatu egin beharko da janariak zentro horietara banatzen direla. Eginkizun horiek sukaldeko langileen % 10ek egingo ditu. % 10 pertsona bat baino gutxiago bada, pertsona horrek ezarrita dagoen gutxienerako zerbitzua egin beharko du.

**3.2.-** Ikasleei elikadura emateko, erabili eta botatzeko materiala erabili beharko da.

**3.3.-** Jantokia muntatzean, mahaiak jaso eta garbitzean, oficeko langileen % 10ek egingo dute. % 10 pertsona bat baino gutxiago bada, pertsona horrek ezarrita dagoen gutxienerako zerbitzua egin beharko du.

**3.4.-** Ikasleei arreta emateko eta jantokiak irekita mantentzeko, heziketa-ziklo eta -etapen araberrako begiraleen ehuneko hau ezartzen da:

**3.4.1.** Haur Hezkuntzako ikasleak (1. zikloa: 2 eta 3 urte):

- Begirale bat 2 urtekoen geletako 9 jankideko.
- Begirale bat 3 urteko gelako 15 jankideko.

**3.4.2.** Haur Hezkuntzako ikasleak (2. zikloa: 4 eta 5 urte):

- Zentroko begiraleen % 10. % 10 pertsona bat baino gutxiago bada, pertsona horrek ezarrita dagoen gutxienerako zerbitzua egin beharko du.

**3.4.3.** Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak: beren elikadura-premiak betetzeko ezinbestekoa den gutxienerako begirale-kopurua.

**Bigarrena.** - Dagozkion administrazio-izapideak betez gero, aipatutako zerbitzuak aldatu ahal izango dira grebaren iraupenagatik, edo arrazoi higieniko biosanitarioak edo batbateko ezohiko arrazoiak direla-eta ezinbestekoa baldin bada.

**Hirugarrena.** – **1.** Grebarako eskubidea erabiltzen ez duten langileek emango dituzte lehentasunez aipatutako zerbitzuak.

2. Langileen ordezkarietara entzun eta gero, Enpresa Zuzendaritzak izendatuko dituzten gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten langileak eta langile horiek, txandaka, bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, orain arte esandakoak eta aurreko artikuluan nahiz indarreko legedian ezarritako mugak errespetatu behar dira.

**Laugarrena.** - Agindu honen aurreko apartatueta bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontratatzat joko dira eta horiek egiten dituztenak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

**Bosgarrena.** - Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

**Seigarrena.** - Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

**Zazpigarrena.** - Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez daitekeela lan-agintaritzan honetan, hilabeteko epean agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen,

**MIGUEL TORRES LORENZO**  
**BIGARREN LEHENDAKARITZA ETA**  
**EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA**